

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko maiatzaren 5a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Altsasu • Gaztetxoendako Gaztelekua sortzeko ahaleginetan ari dira

Felix Iriarte • «Atabalak anitz lagundu nau»

Trenbide berdeak

Hainbat urtetan Nafarroako herri anitz batzen zituzten trenek bidearen arrastoa utzi zuten desagertu zirenean. Orain, trenbide horiei itxura berria eman eta bide berde bilakatu dituzte. Nafarroan Bidasoa, Irati, Plazaola eta Tarazonica trenek utzitako bideak egokitu eta orain oinez, bizikletaz edo zaldiz zeharkatzeko bide berdeak dira.

• CRISTINA BERTAIN

bidaztientzat

Baztan • VII. Mendi Ibilaldia prest da

Baztango Mendigoizaleen martxa Berroetan hasi eta amaituko da

Berroetan hasi eta Berroetan bertan amaituko da Baztango Mendigoizaleek antolaturiko VII. Mendi Ibilaldia, maiatzaren 21ean. Goizean goiz abiatuko da, Baztango herri, mendi eta txoko anitz ezagutu ahal izateko.



Baztango zuhaitzi ederretan barrena ibiltzeko aukera izango dute mendizaleek
● EGUNKARIA

URTERO BEZALA, BAZTANGO Mendigoizaleak taldeak Baztango Mendi Ibilaldia prestatu du; zazpigarrena izanen da aurten, eta Berroetatik hasita, hainbat herri eta bazter igaro ondoren, Berroetan bertan amaituko da.

Udako hilabeteak gertu dira animaturik, eta eguraldi politaren esperoan, Baztango Mendi Ibilaldirako deialdia egin dute Baztango Mendigoizaleek, maiatzaren 21erako aurten. Egun horretan naturarekin bat egiteko aukera ederra izanen dute mendizaleek. Baztango Ibilaldian giro jatorra gozatu eta ingurune

zoragarria ezagutzeko parada ezin hobea izaten baita urtero.

Parte-hartzaileek Baztango inguruetakoko herri, mendi eta txoko ugari zeharkatuko dituzte, Berroetatik hasi eta berriro ere Berroetaraino itzulita. Abartan izanen da mendizaleek Berroetatik irtenda topatuko duten lehenengo mendia; gero, Olari, Saioa, Okolin eta Belatetik pasatuko dira; handik, Mendiola, Ubon, Zozaia eta Errota bisitatuko dituzte, eta azkenik Berroetara itzuliko dira.

Baztango Bailarako Ibilal-

dian parte hartu nahi dutenek 700 pezeta ordaindu beharko dute, eta irteerak izena eman den hurrenkeran egingen dira. Maiatzaren 21ean bertan emanen diote parte-hartzaile bakoitzari dagokion txartela, bidean zehar jarritako kontrol-postuetan erakutsi dezan. Lehenbiziko taldea goizeko 07:00etan aterako da, izena eman den ordenan betiere, baina, aurreko urteetako ibilaldietan bezala, sailkapenak ez du inongo garrantzirik izanen. Baztango Mendizaleek ez dute lehiaketa bultzatzeko helburua, eta,

horregatik, kontrol-postu guztietatik finkatutako denboran pasatzen diren guztiei diploma bana emanen diete.

Kontrol-postuekin batera, osasun postuak ere prest izanen dituzte antolatzaileek, edozein unetan behar den laguntza eskaini ahal izateko. Heldu den maiatzaren 21ean zer eguraldi egingen duen zain izanen dira, beraz, antolatzaileak, eguzkiak laguntzen baidu bederen Baztan inguruko mendizale guztiak Berroetan bildu ahal izateko.

→ Miren Iriarte

Baztan

•
12 Ordu Eskuaraz

BAZTANGO DANTZARIEK antolatuta, asteburu honetan izanen da 12 Ordu Eskuaraz besta. Aurtengo bestaren muina Amaiurko gazteluaren setioa izanen da. Ekitaldiak, dena den, apirilaren 19 an hasi ziren Eskual Herriko Jantzien erakusketarekin. Asteburu honetan, berriz, larunbatean izanen da bestaren abiapuntua, Lekarozko ikastetxeko zelaietan. Goizeko 07:00etatik arratsaldeko 19:00etara, 12 Ordu Lasterka ekitaldia egingen da. Igandean, 10:00etan, Baztango herrietan alboradak joko dira. Eguerdian Amaiurko Batailaren antzezlanaren plazaratuko da Elizondoko karriketan. Bi ordu eta erdietan Elizondoko Merkatu-zelaietan zikiro jatea izanen da, eta arratsaldean, zazpitan, 300 dantzarik dantza jaialdia hasiko dute.

Antolatzaileen kezkarik handiena alde ekonomikoan datza. Aurtengo aurrekontua bost milioikoa da, eta baliteke Nafarroako Gobernutik laguntzarik ez jasotzea, EAErekin eta Akitaniarekin akordioa hautsi duelako. Mari Kruz Goñi antolatzaileak dioenez, «eskutitza bidali genion Miguel Sanzi. Ez dugu erantzunik jaso, eta ziurrenik diru laguntzarik gabe geldituko gara». Hizkuntza Politika alorretik 300.000 pezeta jaso dituzte, baina aurrekontua betetzetik urrundau daude; horrek ezinezona eragin du antolatzaileengan.

→ Rakel Goñi

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Emakumezkoak goitik. Bi istorio xume

1. Idris zeukan izena. Castelgandolfo, Aita Santuak uda parte ematen duten tokikoa zen. Italiarra. Nik ezagutu nuenean buru-indar handikoa. Jendearen hoztasunaz kexu baina Suitzan bizi zen. Lausannen. Ez dakit non eta nola gertatu zitzaion baina goitik behera erori zen leiho batetik behera. Hiru solairuko altueratik, zioenez. Erori zela, esan zidan, baina ez dakit nik...

Gorputza hautsi zuen. Ez zen hil, ordea. Hautsitate hezur ugari konponduta ere, ez zen eroso izan aurrerantzean bere bizitza. Mugitzeko zailtasun handiak zituen. Hala ere, eskuzabala eta lagun askoren artean egotera ohitua, inoiz geldirik egoten ez dakiten horietakoa zen.

Erietxean, sendabidea topatuz gain senarra ere ezagutu zuen. Elbarritasunarekin batera amodioa ere sortu zitzaion. Bere bizitzako amodioa izan zen. Erietxeko erizaina zen gizona eta Idris lagundu

zuen gorputzez eta buruz ere sendatzen.

Tamalez, amodio motza izan zen. Handik urtebetera itota hil zen osasunez beterik zegoen erizaina igerileku batean.

2. Iruñeko alde zaharrean argitzez dago eguna eta Xabier kale -jeitsierako teilatu azpiko leiho batean zintzilik gorputza, kalera erortzeko arriskuan, batez ere bularraldeetan haragiz ongi horniturik dagoen La Tetona izengoitiz auzo osoak ezagutzen duen emakume pottoloa. – «Inor ba al da azpian?», galdetzen du karraxikan. Aurrez aurreko aukerak, jaiki berria, erdi-lotan, lanera joan aurretik, gosaria prestatzen dagoenak aditu dio. Balkoitik gizonak harriturik: – «Baina, zer ari zara ba emakumea. Zer egin behar duzu?». – «Inor pasatzen al da azpitik?», errepikatzen du emakumeak goikaldetik. Eta bestearen intentzioak aski nabarmenak izanik ere... – «Baina, ze asmotan zabilta ba?», gizonak.

– «Neure buruaz beste egin behar dut, baina ez dut inor nirekin hiltzea nahi», berriz emakume pottoloak, «Esaidazu, arren, ea badagoen norbait azpian», temati. – «Ba ez, egon ez dago inor azpian», erantzuten dio gizonak, «Baina, ez ezazu saito hori eman emakumea!!!».

Gainezka egiten du esneak. Su gainean berotzen jarria zeukan auzoko gizonak. Honek sua itzali behar izaten du sukaldean. Handik bi minutura balkoi aldera doanean burrunba aditzen du. La Tetona-k bere leiho azpian zegoen kotxeko sapaia hautsi du bere pisu handiarekin eta kotxe barnean da goitik erori ondoren.

Emakumea, onik ez, baina bizirik atera da larrialditik. Iruñeko bere betiko auzoan ibili da bi makuluz lagundurik hasieran, eta nekez eta mantso baina laguntzarik gabe gero. Eta lehen baino dexente aurpegi alaiagoz.

Altsasu●

Gaztelekua sortu nahian

Herriko gaztetxoendako proiektua, egungo egoerari buelta emateko

**Gazte talde bat
Gaztelekua
sortzekotan da herrian
dagoen premia ikusita.
Egitasmoaren berri
emateko, gaur bilera
egiteko deia egin dute.**



Altsasuko 12 eta 17 urte arteko gaztetxoak biltzeko toki bat antolatzeke xedea dute.

EGUNKARIA

URTE BAT INGURU DARAMATE sei bat gazte Altsasun Gaztelekuaren proiektua ontzen. Horien artean daude gure mintzaideak izan diren Eneka Irizar eta Izaskun Larrión. Haien esanetan, 12 urtetik 17ra bitarteko gaztetxoak biltzeko toki da Gaztelekua. Ludoteka bezalako zerbait litzateke, baina helduagoendako.

Izan ere, ludoteka 12 urte artekoentzat bakarrik da, eta gaztetxoek, eskolatik eta etxetik kanpo, lagunekin elkartzeko kale gorria dute soilik gaur egun Altsasun. Egoera hori negu partean atzematen da batez ere. Udan, igerilekuak direla, eguraldi ona dela, ez baita hainbeste sumatzen. Garai batean joko areto bat bazen Altsasun eta han biltzen ziren, baina hura itxi eta gero, gozoki-denden inguruan biltzen dira gaztetxoak.

Gure solaskideek gaineratu dute adin hori berez zaila dela, eta egungo gizartearen egiturak ez diela batere laguntzen. Nerabeek ez dute adinik ez Gaztetxera ez tabernetara joaten hasteko, eta hor hutsune bat dago. Arazo hori konpontzeko bidea Gaztelekua izan daiteke.

Kezka horrek bultzatuta, lagun talde bat biltzen hasi zen. Antzeko egoerak Donostian eta Iruñeko Sanduzelai auzoan nola konpondu dituzten ezagutzeko aukera ere izan dute, eta hasierako ideia pixkanaka-pixkanaka biribiltzen joan dira. Gaztetxoei aisialdirako lekua eskaintzeaz

gain, heziketa bulkatzeke bidea emanen duela aipatu digu Enekak. Udara begira lanean hasteko asmoa dutela adierazi digu. Hori bai, egoitza lortzen duten bitartean —Udalari dagoeneko egin diote eskaera—, kalean edo basoan egin beharko dituzte ekintzak uda honetan. Aurrera begira, hasieran asteburuetan funtzionatuko luke Gaztelekuak. Baina nerabeek beraiek zeresan handia dute horretan, eskolaz kanpoko ikasketak eta abar direla eta. Beraiekin bildu beharko direla dio Izaskunek. Bien bitartean, aisialdirako elkarte bat sortzeko pausoak ematen hasiak dira.

Seikote bultzatzaileak argi du aurretik lan handia dagoela. Boluntarioak beharko dira aisialdirako lantegiak, film emanaldiak, hitzaldiak, mendi ibilaldiak eta buruan dituzten gainerako gauzak antolatzeke. Hori dela eta, interesaturik dauden guraso, irakasle, gazte eta abarrei bilerarako deia egin diete. Egitasmo honen inguruan informazio gehiago nahi duen guztiak ere gonbidatu nahi dituzte. Bilkura gaur bertan izanen da, Altsasuko Gure Etxean, arratsaldeko 20:00etan.

→ Alfredo Alvaro



herri aldizkariak
Miren Iriarte

Isidoro Fagoaga gogoan

Isidoro Fagoaga tenore beratarren inguruan erreportai bat egin du **Ttipi-ttapa**-k bere azken zenbakian: «Alemaniarrek Francoren aginduz Gernika bonbardatu zutenetik 63 urte bete dira apirilaren 23an. 63 urte bete dira, halaber, Isidoro Fagoaga, gerra zibila baino lehenagoko euskal tenorerik ospetsuenak kantatzeari utzi zionetik. Izan ere, gertaera beltz hark eman zion akabera beratar honen karrera izugarriari. Italiako opera garrantzitsuenetan gailurra lortu ondotik, partiturak alde batera utzi eta literaturan hasi zen buru-belarri». «Berako eskolako koruan hasi zen

kantatzen Isidoro Fagoaga, baina diotenez, lehenbizian ez omen zen berteen artean sobera nabarmentzen. Hamalau urterekin Amerikara joan zen, eta, handik, Italiara. Baina Parmako kontserbatorioan denbora gutti eman zuen, lehen mundu gerrak harrapatu eta Euskal Herrira itzuli behar izan baitzuen. 1921. urtean operan debutatu zuen Fagoagak. 27 urte zituen Sanson eta Dalila opera abestu zuenean».

«Batez ere Wagnerren operak abesteagatik egin zen ezaguna, bere gus-tukoek eta bere ezaugarrietara hobekien egokitzen zirenak hoiek

baitziren. Fagoagaren arrakasta Gernikako bonbardaketaren egunean bertan akautu zen. Sarraskia italiarrak egin zutela zabaldu zen lehen momentuan, eta Isidoro amorrubizian sartu zen Scalan, italiarrak basati hutsak zirela oihukatzen. Garai haietan Wagnerren musika nazismoaren sinbolotzat hartua izan zen, eta diotenez, Fagoagak uko egin zion haren obrak interpretatzeari. Faszisten kontrako jarrera publikoki erakusteagatik bere disko, liburu eta partitura guztiak erre zizkioten. Hortxe akautu zen tenore handi honen ibilbidea».

Sorbeltzak

Orain dela urte batzuk Iruñeko txoriei buruz eman behar zuten hitzaldi batera hurbildu nintzen. Ornitologo bati egiteko galdera zehatz bat banuen, aspaldidantik, eta aukera hori ez nuen galdu nahi. Sorbeltzak (vencejo, martinet) duen kalitate izugarri bati buruz zen galdera. Bada: hitzaldia hasi eta banan-banan ekin zion hizlariak Iruñean ikus ditzakegun txoriez azalpenak ematen: mikak, usoa, txantxangorria... Eta hara nonsorbeltzaren diapositiba ailegatu, sorbeltzari buruz hiru gauza esan eta hurrengo txoriari pasoa eman zion. Nire kezkek, nire dudamudak, erantzunik gabe utzi. Memento hartan nik entzundako sorbeltzaren kalitate bitxi hura asmazioa izango zela pentsatu nuen, zurrumurru ornitologiko bat alegia.

Dena den, hitzaldia amaitu zenean hizlariarengana jo nuen eta zuzenean egin nion galdera: «Barkatu jauna, baina sorbeltzei buruz entzun dudana gauza batez galdetu nahi nizun». Lotsaturik nengo. Zurrumurrurak pailazo baten moduan utz nintzakeen zientifiko haren aurrean. Baina hala eta guztiz ere galdetu nion: «Egia al da txori horiek lurrean pausatu gabe gauero airean egiten dutela lo?». Tipok segituan baietz esan zidan, egia zela. Kalitate izugarri bitxi bat zela hori. Harrituagoa utzi ninduen. «Eta, barkatu jauna, baina nola ez duzu hitzaldian aipatu?», esan nion. «Kontua da jendeak ez duela sinesten», izan zen bere erantzun harrigarria; eta honela segitu zuen, «ez dute sinesten, eta hitzaldi guztia kolokan jartzen dute gero, pentsatuz zientzialari batekin ez baizik eta hitzontzi handi batekin egin dutela topo. Halako egun batean bitxikeria sinesgaitzak alde batera utziko nituela erabaki nuen. Jende arrazionalari arrazoizko gauzak ematea deliberratu nuen, eta kitto. Pena da. Zientziaren ezagupide ederrenak sinesgaitzak direnez edertasunari uko eginen baitiote. Niri bost. Izorra daitezela». To!, ornitologo punkia!

Dena den, egidazue kasu, laster helduko diren sorbeltzen txilioak entzuterakoan sinets ezazue, ez izan arrazionalak, goza ezazue, jakinez jaiotzen direnetik habia egiten duten arte hiru urtez ibiltzen direla zeruan, inongo lurrik ukitu gabe, izarren azpian lotan, hegan egiten duten bitartean. ●

Trenbide zaharren

arrasto berdea

Txirindulaz, oinez edo zaldiz ibiltzeko lau trenbide zahar atondurik daude Nafarroan

Garai batean garraio bide moderno eta azkarra izan ziren trenbide anitz zaharkitu eta betiko gelditu ziren 50eko hamarkada inguruan; horiek utzitako bideak egokitu, eta bide berde bihurtu dituzte horietako lau Nafarroan. Oinezkoak eta txirindulariak ibiltzen ahal dira Bidasoa, Plazaola, Irati eta Tarazonica trenak utzitako arrastoetan.

GARRAIOEN BILAKAERA AZKARRARENkin, antzina hainbat herri elkartzen zituzten tren askok ibiltzeari utzi eta funtzioirik gabe utzi zituzten hainbat eta hainbat kilometro trenbide. Naturaren inguruan, herri eta ondare kultural askoren alboan, hilik geratu ziren bideak egokitu, eta oinez, txirindulaz eta zaldiz ibiltzeko bide egoki eta ederrak dira orain.

Aisialdi eta denbora librerako kultura berriari bultzada ematen diote bide berdeek, eta natura ezagutu eta zaintzeko leku bikainak dira. Oinez edo txirindulaz zailtasunik gabe ibiltzeko aukera ematen dute, trenbideak aldapa gutxi eta bihurtune zabalak utzi baititu. Lurrez, hormigoiez edo asfaltoz, guztiak bertan ibiltzeko proposak dira, bai helduenak eta bai haurrak. Gainera, txirindulariek eta oinezkoek errepideetan izaten duten ariskurik ez dute hemen, ibilgailu motordunek ez baitute sarrerarik.

Orain, udaberria eta eguraldi ona hasten delarik, Nafarroako inguru eta txoko ezkutatu, ezezagun eta eder ugari ezagutzeko parada ematen dute lau bide berdeek.

Doneztebetik Endarlatsara

Bidasoako trenak Doneztebetik Irueraino egiten zuen bidaiak XX. mendearen lehen erdian. Gero, trenak bidea egiteari utzi eta azken urteotan Doneztebetik Endarlatsaraino doan bide berdea prestatu dago. Trenak egiten zuen bidai horretako 29 kilometroetan hormigoiz, lur eta asfaltoan ibiltzen ahal da, tarte batzuetan besteetan baino erraztasun handiagoz. Doneztebetik aterata, Sunbilla, Lesaka, Bera eta Endarlatsa inguruetatik pasatzen da trenbide zaharra. Eta hor trenak utzitako arrastoak ikusten ahal dira. Bertiz parkearen inguruak, Bidasoa ibai zabala, basoa, egurrezko zubi esekiak eta trenak funtzionatzen zuen garaia gogora ekartzen duten zortzi tunel ilun dira Bidasoa bide berde honetan.

Iruñetik 50 kilometro dira Donezteberaino, eta 35 kilometro Donostiatik Endarlatsarako sarreraraino. Hala ere, Sunbilla, Lesaka eta Beratik ere sartzen ahal da bidean.

Plazaolaren arrastoa

Bidasoaren bidetik hurbil, Plazaola trenak

utzi zuen trenbidea ere oinez, txirindulaz eta zaldiz zeharkatzen ahal da. Uitzitik Andoainerrainoko bidea egiten du, eta Gipuzkoako lurretaraino heltzen da, 31 kilometroko bidetik.

Uitzitik Leitzarako 8 kilometroak erabat egokitu gabe daude, baina Andoainerrainoko gainerako bidea lur trinkoa da, oinez edo txirindulaz ibiltzeko oso egokia. Leitzan, bide berderako sarreran, garai batean tren estazioa izan zena dago; zaharkiturik eta konpondu gabe dago orain, baina orduan nolakoa izan zen ikusteko aukera ematen du. Eta hortxe hasten da Andoainerraino bidearen bigarren zatia, zubi txiki eta tunel ilun eta hezea igarota. Kilometro batzuk aurrerago, Plazaola estazioa zena ere badago, Leitzarako baino zainduagoa, baina konpondu gabe hala ere.

31 kilometro hauetan baso atlantiarrek eta pinudi ugari daude, trenbidea zena ingurunean erabat integraturik baitago.

Irati Ilunberriko arrollan

Nafarroako bide berderik motzena Irati trenak utzitako trenbidearena da, Ilunberriko arrollaren inguruetan. 6 kilometro besterik ez ditu, eta zaldiz igarotzeko ez dago egokiturik. Hala ere, ingurune eta fauna ederra erakusten du.

1911. urte arte putreak bakarrik heltzen ahal ziren Pirinioetako arrolla edo honetaraino. Orduan, bi tunel egin eta Irati tren bertatik pasatzen hasi zen; bidaiariek lehenengoz ikusi ahal izan zuten ingurune hori. Baina tren 1955. urtean itxi zuten, eta orain trenbidearen gainean egindako bide berdeak guztion eskura jartzen du ingurune eder hori.

Sei kilometro besterik ez izan arren, leku eder eta arrasto anitz dira bertan. Arrollaren gaineko *Deabruaren zubia* deituriko zubi estu eta beldurgarria; tunel ilun eta hezea; putreen eta beste hegaz-

Trenak utzitako arrastoak, zubi zaharrak, tunelak eta ingurune natural ederra erakusten ditu Bidasoako bide berdeak.

Helduek, gazteek eta haurrek ere bide berdeetatik ibiltzeko aukera dute, oinez, txirindulaz eta zaldiz.

CRISTINA BERIAIN



Oinez edo txirindulaz zailtasunik gabe ibiltzeko aukera ematen dute, trenbideek aldapa gutxi eta bihurtune zabalak utzi baitituzte

Udaberria eta eguraldi ona hasten delarik, Nafarroako inguru eta txoko ezkutatu, ezezagun eta eder ugari ezagutzeko prestatu daude lau bide berdeak

tien hegaldid lasaiak; Salazar ibaia zeharkatzen duen burdinezko zubia. Eta azkenean, Ilunberri herrirako sarrera, bertako arkitektura eta monumentu ederretaraino.

Tarazonica, bide berriena

Nafarroan dagoen laugarren bide berdeak Tarazonica trenak egiten zuen bidea berri-tu du, Tuteratik Tarazonaraino (Aragoi). Hau da Nafarroan prestatu bide berderik berriena, eta heldu den maiatzaren 21a arte inauguratu ez duten arren, prest dira jada Tuteratik Tarazonarainoko 22 kilometroak.

Garai batean hiri biak elkartzen zituen trenaren aztarnak dira orain bide berdearen inguruan; bidearen hasieran, plazan, urte askotan goiti eta beheiti ibili izan zen lurrin tren-makina handia baitago.

Hortik, Erriberako hainbat herritatik Aragoiko lurretaraino, oinez edo txirindulaz, Tarazonarainoko bidea doa. Bertako tren geltokia, garai batean Tarazonica trenaren geltokia kultur ekintzetarako eta gazteentzako leku da gaur, bide berde berri honen azken geltokia.

→ Miren Iriarte

Trenean bideraino

GARAI BATEKO TRENBIDEA LEHENGORATZEKO modua da beraz bide berdea, eta tren bera da horietaraino heltzeko modurik egoki eta errazena gehienetan. Nafarroako bide berde gehienek —Ilunberrikoak ez— tren geltokia dute hurbil, eta horixe da bertaratzeko modu errazena. Aldiriko trenak gainera txirindula garraiatzeko erraztasun anitz ematen dituzte gehienetan, eta geltokiak bide berdearen ondoan izaten dira askotan.

Bidasoako bide berdera Donostia-Hendaia aldiriko tren hiltzen da, Doneztebe-Endarlatsa linean. Donostiako aldiriko trenak bakarrik ematen du aukera Plazaolako bide berdera heltzeko; Donostiatik abiatuta, trenez ere heltzen ahal baita Andoainerraino.

Tarazonica tren zena zenaren bide berdeak ematen du trenez hurbiltzeko modu politena; garai batean Tarazonicaren geltokia zena Tuterako tren geltokia da orain, bertatik eta erabat aldatu. Eta Tarazonicaren bide berdea tren geltokitik bertatik abiatzen da.

Kotxez nahiz trenez, erraz hurbiltzen ahal da bide berde guztietara, baina trenak bide berde hori zer izan zen gogoratzeko eta kontuan izateko aukera ederra ematen du.



→ CRISTINA BERIAIN

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Arabaren egunean

Iragan ostiralean San Prudentzio eguna ospatu zuten gure auzoko arabarrek; dudarik gabe, Nafarroaren ostean zabaleran haundiena den euskal lurralde honek seietan ezezagunena segitzen du izaten, kontrakoa gertatzeko aunitz arrazoi badira ere; modu berean, arabar ezagunen zerrenda luzeska izanagatik, gutxisko dira arabarrak ez garenok ezagutzen ditugunak; bihoaz honetan bost izen makur honen artezten hasteko.



Andagoia konkistatzailea
Paskual Ibañez de Arka Koartango Andagoian sortu zen XV. mende bukaeran. Espainiako koroaren zerbitzura, 1514an ameriketaratu zen Pedrarias Davilarekin batera. Panama hiriko fundazioan izan zen 1519an, geroago ere Rio de San Juan probintziako gobernadore eta Panamako alkatea izan zelarik. Bera izan zen Peruren berri eman zuen lehena, eta Pizarroren aurkako borrokan Liman bertan zendu zen 1548ko irailaren 25ean. Karlos V.ak 1534an eginiko eskaerari erantzunez, *Carta del Adelantado Pascual de Andagoya sobre su partida de Panamá y su prosecución de su viaje y reconocimiento hasta Cali* izenburuko lana izkiriatu zuen 1540an, geroago bere *Relación* ezagunaren aurrekaria izan zena, non besteren artean, bertakoen berri zehatza jaso zigun, egun ezin datu ballagarriagoak izanik antropologiaren ikuspuntutik.

Donnay musikari anarkista
Alfredo Donnay Gomez gasteiztarra 1894ko urtarrilaren 21ean jaio zen. Argentinan erloju konpontzaile bati laguntzen denbora laburra eman ostean, 1914an berriz ere Gasteizera arribatu zen, barnizatzaile moduan lan egin zuelarik. Donnay izan zen CNT sindikatua Gasteizen ezartzeko lehenengo saioak egin zituenetakoa, eta gerra aurretiko urteetan sindikatu horrek Gasteizen zuen arduradunik garrantzikoena izan zen, Bilboko *Solidaridad Obrera* astekariaren kolaboratzaile emankorra izanki. Alabaina, Donnayren aurpegi ezagunena kanta konposatzailearena izan zen; 20ko hamarkadan ihauterietako konpartsen musiketarako hitzak prestatzen zituen: *Los Señadores*, *Los Gitanos Andaluces*, *Los Marinos*, *Los Incas*, *Los Chinos*... *Senderos de ilusión* izenburuko bilduman jaso zituenak. Gerra au-

rretiko bilduma horri beste liburuskaz batzuk jarraiki zitzaizkion. *Canciones. Nuevas y viejas canciones alavesas. Mis canciones. Voces vascas. Voces y txistus. Arabatik. Arabako abestiak*... guztira 200 kantatik gora, 1975eko Urrezko Zelandon saria eskuratzeko balio izan zitzaiona. Alfredo Donnay 1986ko martxoaren 1ean zendu zen bere hirian.

Fournier kartagilea
Heraclio Fournier Gonzalez kartagile famatua Burgosen jaio zen 1849ko martxoaren 2an. Gasteizera 20 urterekin iritsi zen. Kartak egiteko lehenbiziko tailerra Olagibelek diseinatu plaza ederrean ezarri zuen, eta denbora laburrean Fournierren barajek berebiziko arrakasta uzatu zuten. Fournierrek ekoiztiriko kartek lehenbiziko saria jaso zuten Parisko 1879ko Nazioarteko Erakusketan. Fournier kartagilea Vichyn zendu zen 1916ko uztailearen 28an, baina, egun, etxe orotan ditugun kartez gainera, Fournier Museo ezin ederagoa ikus daiteke Gasteizko Aitzogileen karrikan.

Ibañez de Etxabarri ika-mikazale porrokatua
Bernardo Ibañez de Etxabarri Etxeberria (Gasteiz, 1715-Madril, 1762) bi lanen egilea izan genuen. Alde batetik josulagunek Paraguan zuten inperioaren aurkako lana atera zioten Madrilen hil osteko 1770ean. *Reino jesuitico del Paraguay por siglo y medio negado y oculto hoy demostrado y descubierto*. Alabaina, hagitzez ere ezagunagoa gertatu zen Prudentzio deunaz 1754an Gasteizen bertan karri-

karatu zuen liburua, *Vida de San Prudencio obispo de Tarazona, patrono principal e hijo de la provincia de Alava, precedido de un comentario crítico en que se procura ilustrar el tiempo en que floreció distinguiéndose de los otros Prudencios*. Ibañezen liburua guztiz polemikoa agitu zen, berri historikoei baino bere irudimenari kasu haundia goa egiten bide baitzion, eta agertu orduko erantzun mikatz ugari jaso zituen. esaterako Carcamo, Landazuri, Floranes, Risco edota Prestamerorenak.

Placer poliglota
Eloy Placer Martinez de Lezea Ozaetan sortu zen 1914ko apirilaren 19an. Gerratea hasi zenean Valladolideko unibertsitatean ikasle bazebilen ere, Bizkaira iritsi zen eta gudari moduan borrokatuta, kartzelan sartu zuten luzaro, bertan euskaldundu zelarik. Gerra osteko gogorrean Valentzian jardun zuen irakasle, baina baldintzen gogorrek Estatu Batuetara joanarazi zuten 1949an, berriz ere ez itzultzeko. 1949-1953 bitartean Texasko San Antonion izan zen espaineraren irakasle, eta geroago ere baita honako eskoletan ere: Alamo, Kelly, Lackland, Louisiana, Siracusa, Kentucky eta Lafayette. Bere azken geltokia, gogokoen bezain aipagarriena datekeena, Renoko Unibertsitatean izan zuen 1969az geroztik, non Euskal Ikasketen koordinatzaile egin zuten. Placer, hamaika hizkuntzaren jabe izateaz gain, Euskal Herrikoak Espainiako kulturaren izan duen eragina aztertzen ahalegindu zen bereziki; bestalde ere, Pio Barojaren ekarpena gutiz gehien ikertu zuen gaia dugu, honen emaitza *Lo vasco en Pio Baroja* liburua izan zelarik —Buenos Aires, Ekin, 1968—.



etorri ahalean

Patziku Perurena



Gorotz usaiari gorazarre

Aste Santua, batez ere, jendea lurra manetzen nola hasten den ikusteko da polita. Pazkolarunbata, zoierako eguna izaten omen zen Basaburu alde honetan. Ni ordea, patata pizar bat ereiteko, gorotz harrotzen aritu nintzen atzo zortzi, eta gorotz usaiaren lamaradak, mutikotan bizitakoak ekarri zizkidan burura, sudurtzuloak betean. Oroimena ernatzeko ez baita usaia bezalakorik.

Bai: etxe bakoitzak izaten zuen bere gorozpila, bere kanposantu ilun partikularra. Urtearen buruan, zenbat herio kontu, zenbat pekatu ttiki, zenbat hutsegite gorozpilak estaliak: gaitzak galdutako oiloak, ixilpeko abortoren bat ere bai agian, zokoren batean lizundutako zerrikeriak, plastikoz zorro ustel asanduak, auzoan lapurtutako zirtzilkeriren baten puska, amaren arreko burruntzaldi kirtena, aitona zenaren kutzarea, haurrak deskuiduan komontzuloatik botatako guraize herdoituak... zer ez zen azaltzen ordea sotoko gorozpila harrotzen hastean?

Gorotz harrotzailea, epaile iduri, zelebregaxajoren bat izaten zen jeneralean, mantenu eta xurrut truke aste baterako edo etortzen zena. Hala, etxeko kanposantu izandako gorozpila, urte guziko hutsegiteen agertoki bihurtzen zen gorotz harrotzekoan, eta urteroko "gogo jardunak" egiteko balio izaten zuen hark. Izan ere, nahiz gauza asko erabat usteldu eta gorotz bihurtu, beste sekretu txar asko, gorotz harrotzaileak bereizten baitzuten bazterrera, makoan trabatzen zitzaizkielako edo, eta zirtzilkeria salatari haiei begira, urte guziko pekatuen errepasoa egiten genuen etxeok. Jesusen jeitsierakoa baino askoz lezio hobea izaten zen hura. Han ikasi nuen nik aurreneko filosofia.

Gero gorozketariak: igoal

hoge lagun, bakoitza saski banarekin, sotoko gorozpilatik alorrerainoko iladan. Azkeneok, alkandora zuria propio gerrian aterea zuela, hartu azkenaurrekoaren saskia buruan eta, bere hartatik zabalduko zizun gorotza purraka, eskuz ukitu ere egin gabe. Ondotik bigarren jorra ematen zitzaion alorrari, gorotza, arbi azia, pagoxa azia edo zena zelakoa nahastu bidenabar. Baina, goldemakina gailendu ahalean, lurra irauli aurretik gorotza zabaltzen hasi zen jendea, eta akabo gorozketarien festa.

Eta gorotzaren inguruko esaera eder haiek? Ilun beltza adierazteko: "Goizen yeki ta, bide guzia illun gorotzen, eun asteko lanteira alletuko baginan, ta illundu aurren lana utzita itxeko bidea artu ordu illun gorotza berrize". Edo alferkeria edo lohikeria indartzeko: "Altzadi ortik demonio gorotza! Eun guzin pikoik yo gabe so alfer gorotz ori! Au ezta sotoko gorozpilla biño geio moitzen! Gorotza biño alperroa baita gizajoa". Mozkor giroan ere bai: "Seko goroztua zebillen goizaldera. Gorotz yorrada politt politta bazeamak oretzeki!".

Portzierto: zenbat ote dira euskal filologo guzizko horien artean, gorotza eta kaka tajuz bereiztuko kapaz? Aurreko testuinguru metaforiko horixe aski luke euskal filologo erne batek, gorotz hitzak sats, kaka eta gisakoek ez duten semantika jakina badiuela ohartzeko. Neretzako: satsua, (txatxua) eta kakazua gauza bertsua dira, baina ardikaka eta ardigorotza ezta pentsatu ere!

Amorraziorik haundiena ematen du, euskarak oparoen eta ederkien bereiztu dituen gauzak hiztegiaren kakasaltsan ikusteak. Lexiko ugaria jaso bai, baina, hitzen arteko matizik egiten jakin ezean, zertarako? Euskarari gorotz usaia kendu ez, eman egin behar zaio; kaka usai haundizkoa nabari baitu oraindik.

Ziria

• Motxorrosolo •

Antolamendu berria

GAZTE ANDANA BILDU. ELKARRENGANDIK IKASTEAREN XEDE. Antolamendu berriak Hegoko moldeak Iparraldean saiatzeko bada gaitzerdi. Bizkitartean, politikari batzuen kalakak hasitako bidea baino ez du berresten, Aurkidirena lekuko.

Felix Iriarte

Atabalaria

«Atabalak aunitz lagundu nau»

Arizkun herrian jaio zen duela 81 urte Felix Iriarte atabalaria. Hogeitabortz urtez Lantz herriko inauteriak alaitu zituen, Maurizio Elizalde txistulari haundiarekin batera. Duela bortz urte atabala jotzeari utzi ziola dio, baina musika entzun bezain pronto aitzinean duen edozer jotzen du.

ELIZALDEA BERE ETXEKO atea jo eta, ohi den bezala, besoak zabalik hartu gaituzte. Irribarrea ahoan, «ttantta-goxua» hartzeko erran digute. Orduak eta orduak egongo ginatkeen bertan Felixen istorioak entzuten.

■ Noiz eta nola hasi zinen atabala jotzen?

Haur-haurretik hasi nintzen, atabala jotzea ttikit gustatzen zitzaidan. Hasiera horretan ez nuen atabalik ere, baina ikusten nituen gauza guztiak atabal bihurtzen nituen, koxetakin [goilara], tenedoreakin, mahaian... Hortik aitzin afizioa banuen. Bazen Manuel izeneko atabalari bat herrian, urdaitetik nahiko gaizki zebilen eta, askotan, igandetan huts egiten zuen, eta bere ordez hasi nintzen ni plazara joaten jotzera. Manuel zena hil zenean, alkateak eskaini zidan haren lekua, eta geroztik 35 urte egin nituen Maurizio Elizalde txistulari handiarekin. Garai hartan herri gehiengotan bazen txistularia eta atabalaria.

■ Orduan posible zen atabalak ematen zuenarekin bizitzea?

Bizi ez, baina etxerako laguntza handia zen. Halere, zenbait alditan, egun berean bi herritan jo ondoren etxera ailegatu eta sega hartuta joaten nintzen belaiara. Etxean bederatzi lagun bizi ginen eta behegian, ukuiluan, hiru behi txar basterik ez genituen. Alde horretatik atabalak aunitz lagundu nau ni. Zorte handiko gizona izan naiz, bai andrea eta bai nerone ere osasun onekoak izan

gara, eta horrek aitzinerat ateratzen lagundu gaitu.

■ Momentu txarrak ere pasatu al zenituen?

Bai; etxe batean mutil nengoenean nire ama eritu zen erabat, burua galdu zuen eta bera zaintzen ibili behar izan nuen bi urtez. Amaren arropa hartzen nuen eta errekan garbitzen nuen, etxera itzuli eta lixiban sartzen nuen, garai hartan ez baitzen laborarik ere. Arizkun labareroa bazen, baina ni ahalketzen nintzen hainbeste andrekin hara joaten. Ama hil zenean, bakarrik gelditu nintzen, eta orduan pentsatu nuen norbaitek esposatzeko garaia iritsi zela. M^a Angelekin esposatu nintzen, eta hura zortea izan nuenal, emazterik onena aurkitu nuelako, gizona ongi zaintzen eta maitatzen dakiena.

■ Zenbat omenaldi jaso dituzu?

Nik badituz 15 omenaldi; Elizondon bada plaza bat Maurizio eta nire izenean, gure irudi eta guzti. Plaza hau egin zutenean, nik galdetzen nion nire buruari: «Baina guri zertaz?». Nik nire lanari ez nion hainbesterako meritua ematen, baina denborarekin konturatu naiz zerbait berezia egin dugula. Orain pozik nago ni joanen naizenean hor geldituko delako nire irudia eta zenbait urtetan nitaz oroituko direlako. Bestetik, Lantz herrian bi omenaldi egin zizkidaten, bat Maurizioarekin eta bigarrena zilarrezko ezteiak egin nitueanean. Urte hartan bertan pentsatu nuen nahiko zela eta atabala utzi beharko nuela.

■ Zer ekarri zizun hainber-



● ONDIKOL

«Nik nire lanari ez nion hainbesterako meritua ematen, baina denborarekin konturatu naiz zerbait berezia egin dugula. Orain pozik nago, ni joanen naizenean zenbait urtetan nitaz oroituko direlako»

tze urtez Maurizio Elizalderekin jotzeak?

Anaiak bezala ginen. Arras ongi konpontzen ginen, eta horrek gure lana aise politagoa egin zuen. Leku aunitzetan ibili ginen, batez ere Euskal Herrian; garai batean izan genuen demanda gaitza. Jende aunitz ezagutu genuen, baina orain etxera etortzen bazaizkit ez ditut ezagutuko, aurpegizale txarra bainaiz. Behin Mexikora eztei batera jotzera eramán

nahi gintuzten, eta bertze batez Madrilera, baina azkenean ez ginen joan. Momentu txarrak ere izan ziren, txistularien krisi bat egon zen garai batean, jendeak dantzarako gogoa zeukan eta kanpotik akordeoilaria ekartzen zuten, dantza lotua nahi baitzuten!

■ Atabala utzi zenuen, baina seme batek ohiturarekin jarraitu du ezta?

Bai, arras pozik nago norbaitek jarraitu duelako. Herentzia bat bezala da. Nire

soslaia

Felix Iriartek 81 urte ditu, eta duela bortz utzi zion atabala jotzeari. Txikitatik etxean lagundu behar izan zuen, garai gogorrek baitziren; egurra saltzen zuen herrian, eta pentsa zer eskola zeukan "maistrua" baitzen eroslerik onenetarikoa. Atabala jotzen hasi zenean, saiatzen zen bestarik ez egiten, diruaren beharrean baitzeuden.

Lau seme-alaba ditu hainbeste maite duen M^a Angeles bere emaztearekin. Bertsolaritza aunitz gustatzen zaio, eta bera ere txapelketetan ibilia da. Elizondon, Nafarroako Bertsolari Txapelketa batean, bigarrena gelditu zen.

Betidanik nekazaria izan da, eta atabalaz gain, ez du beste lanbiderik eduki. Bere esanetan, atabalak ez dio familiarekin egoteko denborarik kendu, lan hori ez baita egunerokoa.

hiru semeek badituzte dohainak, zaharrenak ederki jotzen du; hor ibiltzen da ezkontzetan, bestetan, ia ez baitago inguruan atabalari-rik.

■ Oraindik baduzu gogoa atabala jotzeko?

Bai, bai, gogoa noiznahi! Telebista ikusten nagoela musikaren bat entzuten badut eskuak joaten zaizkit eta mahaian jotzen hasten naiz atabala balitz bezala. Iloba bat hasi da trikitixa jotzen eta hari ere mahaian jotzen laguntzen diot. Hain pozik ibili naiz atabalari bezala, ezen ez baitut inoiz pentsatu bertze lanbide bat izatea. Belarri onarekin sortu nintzen eta horrek nire bizitzaren bidea markatu zuen.

→ Rakes Goñi

Noski Jator
NEOLITIKOAN
DOÑUA:
"Eki alde urrunean egin omen dute..."



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

AGIAN

Batzuek eta bertzeek bozgorailuak martxan jarri dituzte nork bere (aurre)iritziei eusteko. Zarata handiko kontzertu mediatikoak sortzea ongi dago, batez ere xedea biztanleria etsitzea denean, baina orain arteko martxak etsipena ez ezik, nazka-sentimentura ere eman gaitzake oso epe laburrean.

Agian sentimentu horrek harrapatu nauelako, ez naiz gauza izan azken egunetan batzuen eta bertzeen bozgorailuetatik zabalduko informazioa irakurtzeko. ETAK PNV eta EARI leporatu omen die gertaturikoa. Mayor Orejaren bozgorailuek (potentzia handiagokoak, jakina) titularra aukeratzean bat egin dute: ETAK arrazoia eman dio Mayor Orejari. Tira, ez zegok gaizki, pentsatu dut. Ados jarri dira, behingoz, zerbaiten azterketan. Bat-batean baikortasun egoerara itzuli eta bidea urratzen hasiak garelako konturatu naiz. Hurrengoan, pentsatu dut, baliteke, agian, bietako batek autokritikatxoren bat egitea, ez oso kritikoa, badaezpada ere, eta ezta zuzenean ere. Kritika oso suabea litzateke, bere gustuko bozgorailuaren bidez egina, bertzeak ez dezan pentsa hutsa aitortu duela. Eta, agian, bat hasiz gero, bertzeak ere handik sei urtera antzeko zerbait egin lezake, antzeko modua erabiliz. Eta, horrela, agian, noizbait, batzuek bide poliziala ez dela hau gainditzeko bidea onartuko dute eta bertzeak ere planteamendu zehatz eta errealistagoak mahaigaineratuko dituzte. Eta, agian, noizbait...

gure aukerak

ANTZERKIA

- **Zizur Nagusia:** Gaur, bihar eta igandean, Kultur Etxean *Una noche de verano... sin sueño* antzezlanaren emanen du Zizur Nagusiko Gazte Antzerki Lantegiak.
- **Bera:** Berako Euskara Batzordeak eta Bortzrietako Euskara Mankomunitateak antolatutako, Tanntaka Teatrok *El florido pensil* lana emanen du bihar, larunbata, Kultur Etxean, gaueko 22:00etan.
- **Heldu den maiatzaren 7an** Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen *Plisti-plasta* ikuskizun berria aurkeztuko dute, Kultur Etxean, arratsaldeko 17:00etan.
- **Zangoza:** Bihar, arratsaldeko 18:00etan, Sambhu Teatro taldeak *El mundo de Puff* haurrentzako antzezlanaren emanen du, Karmengo auditorioan.
- **San Martin de Unx:** En la Lona taldeak *Circo discoloro* antzezlanaren emanen du bihar. Udaberriko Bira egitarauaren baitan, arratsaldeko 20:45ean, frontoian.

ERAKUSKETAK

- **Bera:** Maiatzaren 8tik 19ra bitartean, Labiaga Ikastolak, 25. urteurreneko ekitaldien barnean, antzina-ko jantzien erakusketa zabalduko du, egunero, 18:00etatik 20:00etara, Kultur Etxean.

ZINEMA

- **Etxarri-Aranatz:** Gaur gaueko 22:15ean, bihar 20:00e-

tan eta igandean 17:30ean eta 20:00etan *Una historia verdadera* filma emanen dute, udal zinem-

DANTZA

- **Zangoza:** Eszena 2000 jaialdiaren egitarauaren baitan, Mar Gomezek *Hay un picaro en el corral* emanaldia egingen du, arratsaldeko 20:00etan, Karmengo auditorioan.

Eta jaialdi beraren egitarauan, Tempomobile dantza konpainiak eta Nafarroako Dantza Eskolak Eskola Kanpaina egingen dute, maiatzaren 11n, ostegunean, goizeko 11:00etan eta arratsaldeko 15:30ean, Karmengo auditorioan.


BESTELAKOAK

- **Irurtzun:** Datorren asteazkenean, hilaren 10ean,

Kobak: ura eta malkorra diapositiba emanaldia izanen da, Nekane Intxaustiren eskutik, Ingurugiroari Buruzko X. Jardunaldien baitan, Arratsaldeko 20.00etan izanen da, Kultur Etxean.

► **Tafalla:** Maiatzaren 10ean, asteazkenean, Ipuin kontaketa izanen da, euskaraz, Truke teatroak emana, arratsaldeko 17:00etan, udal liburutegian.

CRISTINA BERIAIN



Txorimalo maitagarria

Lasai egonen da Leitzako soro honen jabea. Txoririk ez zaio hurbilduko. Osorik jasoko du, arazorik gabe, landatutakoak emanen dion uzta. Guzti-guztia hartzatxoari esker. Soroaren jabeak izan du ideia bikaina, eta, dirudienez, hartz txikiak aski ongi betetzen du txorimaloaren papera; «txoriak uxatzen ditu», esan digu jabeak. Soroan paratzeko txorimaloa prestatzerako orduan gogorik edo materialik izan ez, eta garai batean inguruko herriren bateko jaietan tonbolan irabazitako hartz maitagarria ileetatik zintzilika du gizonak. Txorimalo gaiztoa da orain hartz maitagarria, eta txoririk ez da leitzarraren soroan.